

GRADUKO IRAKATS ESKAINTZAREN PLANGINTZARI BURUZKO EGUTEGIA (2019/2020 IKASTURTEA)

| | | DATAK / EPEAK | OHARRAK | |
|---------------------------------------------------------------|------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. FASEA: GRADUKO IRAKATS ESKAINTZAREN PROPOSAMENA ZELAN EGIN | 1.1 ETAPA | GRADU BERRIEN IRAKATS ESKAINTZAREN PROPOSAMENA GRABATZEA <ul style="list-style-type: none"> Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako Zuzendaritzek baimena emango dituzte derrigorrezkoak diren eta hautazkoak diren irakasgaiak . Ikastegiak talde eta ordutegiak grabatuko ditu Sailek irakaslan grabatuko dute | <ul style="list-style-type: none"> 2019ko martxoaren 1era arte 2019ko apirilaren 5era arte. 2019ko apirilaren 8tik maiatzaren 17ra arte | <ul style="list-style-type: none"> Eragindako titulazioak: Graduak Prozedura: Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako zuzendaritzek prozedura betetzeko jarraibideak jakinaraziko dizkiete ikastegiei. Kontuan hartuko da Akademia Antolakuntza eta Doktoregoko Batzordeak 2012/01/26an onartutako arautegia. Arautegi hau unibertsitatearen web orrian eskura daiteke, Irakasleen atalera joan eta ondoren Irakaskuntza-plangintza sakatzuz. |
| | 1.2 ETAPA | IKASTEGIKO BATZARREAN ONARTZEA <ul style="list-style-type: none"> Ikastegiko Batzarrean proposamena onartzea (desagertzeaz dauden tituluak eta gradu berriak) | <ul style="list-style-type: none"> 2019ko maiatzaren 20ra arte (azken eguna) | <ul style="list-style-type: none"> Ikastegietako batzarrek graduko irakats eskaintzaren proposamena onartuko dute. Horretarako, sisteman grabatutako irakats eskaintzaren proposamen laburtua jasoko dute batzarkideek. Kontuan hartuko da Akademia Antolakuntza eta Doktoregoko Batzordeak 2012/01/26an onartutako arautegia. Agiri hori unibertsitatearen web orrian eskura daiteke, Irakasleen atalera joan eta ondoren Irakaskuntza-plangintza sakatzuz. Ikastegiaren proposamenak jasota izan beharko ditu Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako zuzendaritzek eskatutako egokitzapenak, bai eta Euskararen arloko Errektoreordetzak eta Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak adierazitako irizpideak ere. |
| 2. FASEA: IRAKATS ESKAINTZA ONARTU ETA ZUZENTZEA | 2.1. ETAPA | IRAKASLEEN PLANTILLAKO ZUZENDARITZAK PROPOSAMENA AZTERTZEA ETA EGOKITZAPENETARAKO PROPOSAMENAK BIDALTZEA | <ul style="list-style-type: none"> 2019ko maiatzaren 21etik 31ra arte. | <ul style="list-style-type: none"> Euskararen arloko Errektoreordetzak, Campus Birtualeko Zuzendaritzak eta Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako Zuzendaritzek irakats eskaintzaren proposamenak aztertuko dituzte, eta pixkana-pixkana, egokitzapenak egiteko eta okerrak zuzentzeko proposamenak bidaliko dituzte. |
| | 2.2. ETAPA | ALEGAZIOAK ETA BEHIN BETIKO EGOKITZAPENAK: ONARTUTAKO IRAKATS ESKAINTZA <ul style="list-style-type: none"> Ikastegien eta sailen alegazioak Behin betiko egokitzapenak bidaltzea Egokitzapenak (aurrekoak) grabatzea | <ul style="list-style-type: none"> 2019ko ekainaren 3tik 21era arte | <ul style="list-style-type: none"> Ikastegiek eta sailek alegazioak egin ahal izango dituzte, epe zorrotz batean Ikastegiek Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako zuzendaritzetara bidaliko dituzte euren eta sailen izenean, edo sail atalenean, egindako alegazioak Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako Zuzendaritzek erantzuna emango diete eta behin betiko egokitzapenak eta zuzenketak finkatuko dituzte Ikastegiek eta sailek kasuan kasuko aldaketak grabatuko dituzte |